



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2019.04.01

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko apirilaren batean, 08:30ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

Bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar

1. **Aurreko akta onartzea.**
2. **2019/479 Dekretuaren berri ematea (2019/8, 2019/9 eta 2019/10 faktura-zerrendak).**

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko martxoaren 25ean egindako batzarreko aktak aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. 2019/479 DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2019/8, 2019/9 ETA 2019/10 FAKTURA-ZERRENDAK).

Idazkariak 2017/2184 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ALKATETZA DEKRETUA

Zk.a: 479/2019

Tolosa Udaleko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabalek, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen



TOLOSAKO
UDALA

aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, ondoko hauek

IKUSIRIK

LEHENIK.- *Lehendakariari egokituko zaiola onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hauek:*

8. zenbakia duena, 257.283,86 eurokoa

9. zenbakia duena, 108.544,16 eurokoa

10. zenbakia duena, 116.580,97 eurokoa

eta aipatutako zerrenda hauetan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukatela eta behar bezala fiskalizatuta daudela.

KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1 f) artikuluan xedatutakoa, eta 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedaturikoa, non alkateari ematen baitzaio ahalmena gastuak onartzeko.

Alkatetza honek ondorengo hau

ERABAKI DU

LENEHIK.- *Onartzea 257.283,86, 108.544,16 eta 116.580,97 €-ko 2019ko 8, 9 eta 10 zk.dun faktura-zerrenda hauetan dauden faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta berauen ordainketa agintzea.*

BIGARREN.- *Dekretu hau Tolosako kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernuari helaraztea.*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA